



Haur eta gazteen transexualitatea

Urr. 27 - Urt. 22 2022

Kod. @27-22



Mod.:
Online

Edizioa
2022

Jarduera mota
Luzapen luzeko online ikastaroa

Data
Urr. 27 - Urt. 22 2022

Hizkuntzak
Euskara

Balio akademikoa
60 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA





Azalpena

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko baliozkotzea eskatu dugu unibertsitateaz kanpoko irakasleentzat. Baita ere Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Sailak irakasleen etengabeko prestakuntza gisa ere baliozkotzea eskatu da.

Transexualitateari buruz ari gara jaiotzean, genitalak behatuta, sexua esleitu eta beren sexu-identitatearekin bat ez datorren pertsonen bizi duten errealitateari buruz ari garenean.

Hainbat ikerketen arabera, errealitate honen prebalentzia 1/1000koa izan daiteke, hortaz, haur edo nerabeekin lan egiten duen edozein langilek bere ibilbidean zehar kasuren bat ezagutzeko aukera asko ditu. Profesional horiek, gehienetan, ezagutzarik ez dutela eta ez direla bide lagunak izateko gai sentitzen adierazten dute.

Transexualitatea kultura zein garai historiko guztietan existitu izan da. Gure testuinguru kultural eta historikoan, duela oso gutxira arte, transexualitatea helduen kontutzat genuen eta buruko gaitza, bizio edo perbertsio bezala ulertzen zen. Haur eta gazteen transexualitatea ikusezina izateaz gain, pentsaezina ere bazen.

Zorionez, gaur egun errealitatea hau pentsatu, ulertu eta, ondorioz, lagundu dezakegu. Are gehiago, haurtzarora eta nerabezarora euren sexu-identitatearen arabera bizi den transexualitate egoera dauden pertsonen lehen belaunaldia ezagutzen ari gara.

Ikastaro honetan, sexologiaren eremu teorikotik, gai horren inguruan emandako azken aurrerapenak aurkeztuko ditugu. Gainera, transexualitatea esparru guztietan laguntzeko ahalmenak landu eta baliabideak eskainiko ditugu

Helburuak

Ikastarora amaitzean parte hartzaileek lortuko dute:

Haur eta gazteen transexualitatearen inguruan ematen ari diren aurrerapen teoriko eta praktikoak ezagutu, eta bizitza prozesu hauen bide lagunak izateko ahalmen eta baliabideak izan.

Helburu zehatzak:

- Giza Sexu Izatearen esparru teorikora hurbiltzea.
- Transexualitatea aniztasun adierazpen bezala ulertzeko kontzeptuak eta oinarritzko ideiak ezagutzea.
- Sexu-identitateari eta horren adierazpenari lotuta eman daitezkeen errealitate ezberdinak identifikatzeko baliabideak izatea, eta, bereziki, transexualitate egoerak.
- Okerreko adiera, mitoak eta gezurrak identifikatzea.
- Sexuazio prozesua ulertzeko oinarritzko ezagutza izatea.
- Haurtzarora eta nerabezarora zehar, bizitza prozesuetan eman ohi diren etapak eta seinaleak identifikatzea.
- Adierazten diren beharrak antzeman eta behar horiei erantzuteko tresna teoriko zein praktikoak izatea.
- Transexualitate egoeran dauden neska-mutilen bizitza prozesuak laguntzeko ahalmenak garatzea, eskolan, etxean, zein gizartean.
- Haurtzarora ematen diren gorputzaren bizipenak zeintzuk diren jakitea.
- Pubertarora eta nerabezarora ematen diren gakoetara hurbiltzea.
- Neska-mutil hauentzako esparru seguruak sortzeko oinarriak jartzea.
- Berdinen arteko ulermena eta errespetua sendotzeko oinarriak ezartzea.



Programa

2022-10-27 / 2022-10-30

Aurkezpena

2022-10-31 / 2022-11-13

1. Kontzeptuak eta oinarrizko ideiak

2022-11-14 / 2022-11-27

2. Okerreko adierak, mitoak eta gezurrak / Sexuazio prozesua

2022-11-28 / 2022-12-11

3. Etxean lagundu. Etapak eta seinaleak

2022-12-12 / 2022-12-25

4. Eskolan lagundu

2022-12-26 / 2023-01-08

5. Pubertaroa eta nerabezaroa. Gorputzaren bizipena



2023-01-09 / 2023-01-22

6. Legeak eta protokoloak / Amaiera

Zuzendariak



Beatriz Sever Egaña

Bea Sever sexologoa

Bea Sever Egaña kazetaria, sexologoa eta Suizidologian aditua da. Chrysallis EH eta ondoren Naizen elkarteko kidea da. Naizeneko arreta arduradun bezala, bere seme-alaben errealitatea ulertzeko prozesuan familien bide laguna izateaz gain, arlo guztietako profesionalak laguntzen ditu: irakasleak, medikuak, hezitzaileak, begiraleak, kirol arlokoak... Nazioarteko oihartzuna izan zuen “Zakila duten neskak eta bulba duten mutilak” kanpaina eraman zuen. Naizeneko gazte taldeko koordinatzailea ere bada eta gazte transexualentzako hitzaldiak, ekintzak, udalekua, etab. antolatzen ditu, baita neska-mutil hauek entzun eta lagundu ere. Transexualitateari buruzko formazioak ematen ditu eta jardunaldi, kongresu eta antzekoetan parte hartu ohi du. Hainbat lege eta protokoloen lan-mahaietako partaidea izan da. “Tránsitos” liburuaren kolaboratzailea izan da eta une honetan “Otros tránsitos” liburua prestatzen dabil, transexualitatearen bizipen anitzak islatzeko.



Matrikula prezioak

MATRIKULA	2022-10-27 ARTE
Orokorra	212,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	180,00 EUR
Irakasteko ikasten - Eusko Jaurlaritza	180,00 EUR
Irakasteko ikasten - Nafarroako Gobernua	180,00 EUR
Matrikula exentzioa	148,00 EUR
Gipuzkoa / Bizkaia eta Arabako Psikologoek Elkargoko Ofiziala	180,00 EUR